

DATU PERTSONALAK BABESTEAREN GAINKO INFORMAZIOA

Datu pertsonalen tratamendua honako arau hauen arabera eginen da: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko erregelamendu orokorra) indargabetzen duena; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoa.

Erregelamendu horren 13. artikuluan xedatutakoa betetzeko, hauxe jakinarazten da:

TRATAMENDUAREN ARDURADUNA	Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua. Tomás Caballero parkea 1. 31006 Iruña. desarrollo.economico@navarra.es Nafarroako Gobernuko Datuak Babesteko Ordezkaritza Karlos III.aren etorb. 2. 31002 Iruña. dpd@navarra.es
TRATAMENDUAREN XEDEA	Zure datuak tratatzen dira prozedura honen kudeaketarako. Gainera, aurreikusi da helburu estatistikoetarako erabiltzea. Emandako datu pertsonalak gordeko dira tratamenduaren helburuak betetzeko behar den denbora guztian.
TRATAMENDUAREN LEGITIMAZIOA	Tratamendua beharrezkoa da interes publikoko misio bat betetzeko edo botere publikoak egikaritzeko, hala nola eraikuntza-sektoreko enpresak azpikontratatzeko liburua gaitzea honako hauetan aurreikusitako moduan: 32/2006 Legea, urriaren 18koa, Eraikuntzaren Sektorera azpikontratazioa arautzen duena; 1109/2007 Errege Dekretua, abuztuaren 24koa, 32/2006 Legea garatzen duena; 333/2007 Foru Agindua, azaroaren 8koa, Eraikuntzaren sektoreko azpikontratazioaren liburua gaitzeko arauak ezartzen dituena; eta 7/2011 Foru Agindua, urtarrilaren 13koa, 333/2007 Foru Agindua aldatzen duena (2011ko 22. EAO, otsailaren 2koa).
DATUEN JATORRIA	Identifikazio datuak, harremanetan jartzekoak, sozioekonomiko eta finantzarioak eta, behar denean, lan jardunari buruzkoak lortzen dira, batez ere eskabidean ematen direnetatik. Beste batzuk harreman administratiboan zehar sortzen dira, eta beste zenbait, berriz, administrazio eta erakunde publiko nahiz pribatuek jaso beharrekoak dira, kudeaketa egokia egiten bada.
DATUEN HARTZAILEAK	Datuak lagatzen ahalko zaizkie Nafarroako Gobernuaren beste organo batzuei, baita beste administrazio publiko batzuei edo kontrolleko agintari, auzitegi eta erakunde publikoei ere, beren egitekoak bete ditzaten. Finantza entitateei ere lagatzen ahalko zaizkie, ordainketak kudeatzeko eta legezko betebeharrengatik.
ESKUBIDEAK ZURE DATUAK EMATEN DITUZUNEAN	Zure datuei dagokienez honako eskubide hauek balia ditzakezu: <ul style="list-style-type: none"> • Datuetan sartzeko eskubidea: jakiteko zer datu ari diren tratatzen. • Zuzentzeko eskubidea: okerrekoak edo osatugabeak direnean. • Mugatzeko eskubidea: tratamendua mugatzeko; kasu horretan, bakarrik erabiliko dira erreklamazioak aurkezteko edo horietatik defendatzeko. • Kontra egiteko eskubidea: zure datuen tratamendua eten dadin, salbu eta bidezko arrazoi larriak badaude edo erreklamazioak aurkezteko edo defendatzeko. • Ezabatze eskubidea: zer helbururekin jaso ziren, xede horretarako beharrezkoak ez diren datuak ezerezteko. • Datuak eramangarriak izateko eskubidea: zuri zure datuak ematekoa, gero beste erakunde arduradun bati emateko. • Adostasuna errebokatzeko eskubidea: esan nahi du edonoiz egin daitekeela atzera adostasunean, tratamendurako baimena eman ondoren, horrek eraginik ez duela emandako baimenean oinarrituriko tratamenduaren zilegitasunean, eta hortik etor daitezkeen ondorioekin.

Eskubide horiek erabiltzeko, idazki bat aurkeztuko duzu, Garapen Ekonomikoko Departamentuari zuzendua.

Zure eskubideak erabiltzeko idazkien ereduak Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren webgunean aurkituko dituzu (www.agpd.es).

Halaber jakinarazten zaizu erreklamazioa aurkezten ahal diozula bai kontrol agintaritzari, datuen babesaren alorrean eskumena duenari, bai Nafarroako Gobernuko Datuak Babesteko ordezkaritari.